



Zure txakurra, zure ardura

Errespetatu arauak eta elkarbizitza zaindu

Tu perro, tu responsabilidad

Respetar las normas, cuidar la convivencia

AMASA-VILLABONA



Villabonako Udala



Txakurra edukitzeak besteekiko errespetua eskatzen du

Txakurrek konpainia, maitasuna, alaitasuna... ematen digute. Gure familiaren parte dira, baina, konpromiso sendoa eta erantzukizun handia eskatzen dute.

Kaleak, parkeak eta espazio publikoak partekatzen ditugu txakurrekin. Horregatik, maskotekin elkarbizitzeak, gainontzeko herritarrekiko eta animaliekiko errespetua eskatzen du. Animaliarri zaintza egokia ematea, oinarrizko arauak errespetatzea eta jarrera arduratsua izatea ezinbestekoak dira bizikidetza atsegina izan dadin guztiontzat. Batzuetan, egoera deserosoak sortu daitezke, ordea. Hori dela eta, biziki-

detza on bat txakur-jabeen konpromisoarekin hasten dela gogoraraztea garrantzitsua da.

Tener un perro es una gran responsabilidad. Exige respeto hacia el resto de la ciudadanía y hacia los animales. Un cuidado adecuado del animal, el respeto a las normas básicas y una actitud responsable son vitales para que la convivencia sea agradable.

Sin embargo, pueden surgir situaciones incómodas. Por lo que es importante recordar que una buena convivencia comienza con el compromiso de las personas que tienen perros.

OINARRIZKO ARAUAK

Amasa-Villabonan *Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren arabera:*



Txakurren gorotzak jaso behar dira, bai kaleetan eta baita berdeguneetan ere.

Herriko espazio publikoetan txakurrak uneoro uhal batekin kontrolatuta eraman behar dira.



Arriskutsu gisa sailkatuta dauden txakurrek bozala eraman behar dute.

Udaltzaingoak Ordenantza hau betetzen dela zainduko du eta, bete ezean, 150 eurotik 15.000 eurora bitarteko isunak jarri ditzake.




NORMAS BÁSICAS

La Ordenanza Municipal de Tenencia y Protección de Animales establece:



Es obligatorio recoger los excrementos de calles y jardines.

Los perros deben ir atados con una correa.



Los perros clasificados como potencialmente peligrosos deben ser llevados con bozal.

La Policía Municipal velará por el cumplimiento de esta Ordenanza y, en caso de incumplimiento, podría imponer multas de 150 a 15.000 euros.



Amasa-Villabonak txakur-parke berria du

Txakurrentzako parke berri bat sortu du Udalak Agaraitz inguruan. Maskoten gozamerako eta ongizaterako pentsatutako gunea da. Barrutiak 1.000 m²-ko partzela hesitua du, ur-iturriarekin eta zakarrontziekin, txakur-gorotzak botatzeko.

K1 EKOPAISAIA S.L.L. enpresak itxi du parkea, eta 12.082 euroko

inbertsioa egin du Udalak horretarako. Gainera, herrian beste txakur-parke berri bat sortzeko zonalde posibleak aztertzen ari da.

Udalak txakurren jabee arduraz jokatzeko eskatzen die, espazioa garbi mantenduz eta parkeko arauak errespetatuz.

Amasa-Villabona cuenta con un nuevo parque canino

El Ayuntamiento ha creado un nuevo parque para perros en la zona de Agaraitz. Un espacio pensado para el disfrute y el bienestar de las mascotas. El recinto cuenta con una parcela vallada de 1.000 m² con fuente de agua y papeleras para depositar los excrementos caninos.

El parque ha sido cerrado por K1 EKOPAISAIA S.L.L. con una inversión municipal de

12.082 euros. Además, el Ayuntamiento estudia las posibles zonas para crear un nuevo parque canino en la localidad, con el objetivo de ampliar este tipo de espacios.

El Ayuntamiento insta a los propietarios de perros a actuar con responsabilidad, manteniendo el espacio limpio y respetando las normas de convivencia.